



Foru dekretu bat egin aurreko kontsulta publikoa, hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura arautzen duena, Nafarroako lanbide heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emateagatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak ere.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten datorren arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, puntu hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dokumentu honen helburua da lehen aipatutako arauak planteatzen dituen gaiei erantzutea, eta foru agindu hori (hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura arautzen duena, Nafarroako lanbide heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emateagatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak ere) egin aurreko kontsultaren oinarri izatea, arauaren hartzaile izan daitezkeenek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen azken xedapenetako hogeigarrenak Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa aldatzen du, eta ezartzen du Bigarren Hezkuntzako katedradunen eta irakasleen kidegoetako irakasleek eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoko irakasleek eskaintza integratua duten titulartasun publikoko ikastetxeetan bete ahal izango dituztela beren eginkizunak, lanbide prestakuntzako modalitate guztiak irakatsiz, bakoitzaren profil akademikoaren eta profesionalaren arabera, baldin eta Lanbide Heziketako tituluen edo profesionaltasun-ziurtagirien moduluak irakasteko baldintzak betetzen badituzte.



Ildo beretik, uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legeak, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoak, 14. artikuluan dioenez, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako irakasleek, berariazko lanbide heziketan beren funtzioak betetzen jarraitzeari kalterik egin gabe, lanerako eta etengabeko lanbide prestakuntzan eginkizunak bete ahal izanen dituzte, beren profil akademiko eta profesionalaren arabera. Artikulu horrek berak ezartzen du erregelamendu bidez zehaztuko dela enplegurako lanbide prestakuntza emango duten irakasleak izendatzeko edo kontratatzekeo prozedura, bai eta ordainsariak eta artikulu horretan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren beste alderdi batzuk ere.

B) Araua onestea beharrezkoa eta egokia ote den.

Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako eta Hezkuntzako departamentuek erabaki zuten 2020ko urrian azken horri eskualdatzea enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarriaren arloko eskumenak, besteak beste. Horren ondorioz, enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarriak presentzia handiagoa izango du lanbide heziketako ikastetxe publikoen sarean.

Beraz, testuinguru honetan beharrezkoa da arau bat egitea, Lanbide Heziketako irakasleek sare publikoko ikastetxeetan ematen den enplegurako prestakuntza egiaztagarrian esku hartu ahal dezaten.

C) Arauaren helburuak.

Hortaz, arau honen helburua da hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura ezartzea, Nafarroako lanbide heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emategatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak ere.

D) Egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Ez da balizko bestelako konponbiderik aurreikusten.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Departamento de Educación
Hezkuntza Departamentua

Servicio de Cualificaciones Profesionales, Empresa y Empleo
Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzua
San Domingo 8
31001 Pamplona/Iruña
Tel. 8248 42 89 85
scualiedu@navarra.es

Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzuko zuzendaria



Fco. Javier Martínez Cía